



ELÍAS
QUEREJETA
ZINE
ESKOLA



Komisariotza
Zinematografikoan Masterra

Komisa- riotza

Pantailen geografia



KOMISARIOTZA ZINEMATOGRAFIKOAN MASTERRA

Komisariotza Masterrak aukera ematen du uholde teoriko osoa eskuratzeko, arte plastikoetatik heredatua neurri batean, baita tradizioak eta programazio eskolak ere. Korrante horiek aztertu eta kritikoki berrikusteaz gain, zinea banatzeko eta eskura izateko baldintzak eta formulak birpentsatzera behartzen du ikastaroak, inflexio-une berri (eta zalantzazko) batean zinea eskaintzeko eredu tradizionalerako; izan ere, gero eta indar handiagoa hartzen ari dira streaming plataformak eta pixkanaka desagertzen ari dira zinema aretoak.

Parte hartzaile bakoitzaren irizpide eta begirada bereziak lantzeaz gain, ikastaroak proiektu zinematografikoak garatzeko tresnak ematen ditu, ideia fasetik hasi eta gauzatzeko faseraino. Gainera, komisarioaren ikerketa, kritika, saiakera lana eta lan akademikoa sustatzen du espezialitateak.

Ikastaro honen ezaugarri nagusietako bat da etengabeko harreman profesionala eta irakaskuntza harremana izaten dela sortu duten erakundeekin.

Ikasleek komisariotza proiektu oso desberdinetan lan egin dezakete, hala nola Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak edo Donostiako Zinemaldiak proposatutakoetan.

Eskolako eredu pedagogikoari buruzko informazio gehiago



PANTAILEN GEOGRAFIA

Lurralde bat asmatzea, bertatik igarotzen garen bitartean. Mugarik eta eremu frankorik gabeko herrialde batean zehar bidaia egitea da Komisariotza masterra. Nolakoa izan behar du oraindik (ia) existitzen ez den lanbide baten prestakuntzak? Masterra da horren erantzun bat. Gogoeta eta kontzeptualizazioaldi bizi proposatzen du lehenengo: kontua da filosofikoki eta estetikoki armatzea, funtsezko galderak identifikatzea eta hizkuntzaren zehaztasunean trebatzea.

Lehenengo aldian, hauxe da, lehenengo bi moduluetan, bat egiten dute zinema programazioaren intuizioek eta komisariotza pentsamendu artistikoaren tradizio landuenak. Bi polo horiek elkartzetik sortzen den argi arkuak argitzen ditu hurrengo urratsak, trebetasun eta abilezia praktikoak lortzea ardatz hartuta, zinema komisarioak edo komisariotzak eskuekin egiten baititu


pentsamendua eta historia; hau da, orainari forma emateko praktikan. Bigarren etapa horretan, masterrak arreta handia jartzen du idazketan (hitzekin zein irudiekin) eta programazio ariketa praktikoan, ideia ariketa gisa ulertuta, baina baita aurrekontua, kudeaketa eta komunikazioa gauzatzeari begira ere. Irakaskuntza aldiaren azken etapa urrats bat harago doa lanbidea formalizatzeko ariketa honetan, eta proposatzen du komisariotzara hurbiltzea zine ekoizpenaren benetako eragile gisa. Hau da, komisariotza kultura errealitate berrien (ikerketa, ekoizpena eta pedagogia) sortzaile gisa.

Hasierako errekuntza teoriko horretatik abiatuta, argi kono bat da masterra, eta bere irudiak eta soinuak, sortzen diren ideiak eta paradoxak, zehazten ditu orainaren gainazalean. Pantailen geografiara bidaia.

Gogoeta eta
kontzeptualizazioa



Filosofia
Estetika
Zorroztasuna



PROGRAMA AKADEMIKOA

Enborreko ikasgaia

Ikasgai honek zinemaren pentsamenduaren eta zinemaren historiaren sarrera orokor bat eskaintzen du.

Aberrazioen artea: zinemaren historiak eta estetikak

Zinemaren estetikari eta historiari buruzko hastapen-ikasturtea da hau, orainaren bidegurutzetik planteatua; historiaren kontzeptua bera kontakizun totalizatzaile gisa krisian egoteaz harago, benetako susmoa zabaldu da denbora diakronikoaren antolamenduari eta aurrerapenaren ideari buruz. Irakasgaiak zinemaren historia gure garaitik kontatzeko aukeraz galdetzen du: historia paradoxikoa eta plurala, irekia eta errizomatikoa, ez lineala, karnabaleskoa eta metamorfikoa.

Espezialitateko ikasgaiak

Ikasgai multzo honek ezagutza espezifikoa lantzen ditu eta hiru espezialitateetako berezko gaietan murgiltzea bilatzen du.

Komisariotza zinematografikoaren poetika eta politikak

Irakasgai honetan praktika kritiko gisa aurkezten da komisariotza zinematografikoa, kokatua eta eboluzioan dagoena, indar historikoen, instituzionalen eta kulturalek zehaztua. Mintegien, kasu-azterketen eta gonbidatuekin egindako saioen bidez, ikastaro honek erlazio- eta eraldaketa-ekintza gisa proposatzen du programazioa, filmak berrirudikatze, narratiba nagusiak zalantzan jartzeko eta hausnarketarako eta esperientziarako espazio partekatuak sortzeko gai dena.

Artxibo katalogazioa, dokumentazioa eta komisariotza

Irakasgai honek ikus-entzunezko lanen katalogazioa lantzen du ikuspuntu teoriko-praktikotik, eta formatuek izan duten bilakaera aztertzen du euskarri fotokimikotik digitalera, bai eta aldaketa teknologikoen ondarea kontserbatzeko eta sailkatzeko dakartzaten erronkak ere.

Ikus-entzunezko artxiboen bildumak kudeatzea

Irakasgai honek ikus-entzunezko artxiboen kudeaketaren metodologiak, estandarrak eta erronkak aztertzen ditu, eta tresnak ematen ditu ikasleek errealitate instituzional desberdinetara egokitutako plan estrategikoa diseina ditzaten.

Hiru artxiboen mapa: artxiboa eta ikerketaren metodologiak

Irakasgai honek film-artxiboaren azterketa ikertzaile, kritiko eta kuratoriala proposatzen du, memoria, ekintza eta proiektzioa esparru filosofikoetatik artikulatuz, haren erabilera tradizionalak zalantzan jarri eta iraultzeko.

Zinema. Zinema banatzeko, eskuratzeko eta erakusteko tresna teoriko-praktikoak

Irakasgai honetan eskolako zinema-aretoa erabiltzen da Komisariotza espezialitateerako esperimenduzko laborategi gisa, erakusketaren, banaketaren eta komunikazioaren azterketa teorikoa zinekluba kudeatzeko praktika errealekin konbinatuz.

El buen amor. Idazketa eta zinea

Irakasgai hau zinemari buruzko idazketaren inguruko ikasgai teorikoa eta praktikoa da, kritikatik eta saiakeratik argitalpenen edizioraino.

Kuradoretza praktikatzeko espazioak

Irakasgai honek zinemaren dimentsio espazialak, sozialak eta instituzionalak aztertzen ditu, eta aztertzen du, halaber, mugitzen diren irudiak nola moldatzen dituzten irudi horiek erakusten, zirkulatzen eta esperimendatzen diren inguruneek —eta irudiek ere modu aktiboan moldatzen dituzte inguruneak—.

Zinefabrika: proiektu kuratorialak garatzea

ZineFabrikak hurbilketa teorikoa eta praktikoa egiten du komisariotza zinematografikoaren lanbidera, ikuspegi berezia eskainiz komisarioen eta ekosistema kulturala eta zinematografikoa osatzen duten egitura

eta erakundeen arteko harremanari. Saio praktikoak, tailerrak profesionalekin eta proiektuen akonpainamendua konbinatzen ditu, gogoeta eta ekintza kuratoriala lotzeko.

Zeharkako ikasgaiak

Zeharkako ikasgaiak EQZEren hedapen eremua dira, non ikasle bakoitzak bere bokazio espezifiko edo ezagutza-bide anitzenak aurkitzen dituen.

EQZELab. Film-laboretegi profesionala

Irakasgai honen helburua da laboretegi profesional bateko tekniketari eta lan-fluxuetan murgiltzea, errebelatzeko (kolorea eta zuri-beltza 16 mm-koa) kolorea zuzentzeko eta kopiatzeko teknologia espezifikoaren erabilera praktikoan oinarritua.

The Art of Primitive Emulsions

Tailerrak artisau-emulsio fotokimikoen ekoizpena ezagutzen hastea proposatzen du. Materialtasunaren historian eta zineman interesa dutenentzako ikastaroa, zinema pentsamenduak, irudiak eta soinuak sortzen eta desitxuratzen dituen material gisa hartuta.

Tinting and Toning

Tailer honetan zinemaren jatorrizko kolorea eta zuri-beltzeko filmari kolorea emateko teknikak eskaintzen dituzten aukera estetikoak aztertuko dira.

Zinebotanika

Mothlight edo *The Garden of Earthly Delights* filmetan Stan Brakhagen erabilitako kamerarik gabeko zinemaren metodoak abiapuntu hartuta, herbario filmiko bat sortzeko teknika eta prozesu batzuk aztertuko ditugu.

Interpreting and Conserving Complex Media Artworks

Ikastaro honek artelan garaikide konplexuak batuko ditu, multimedia artearen arazo nagusiak eta kontserbazio-estrategia sortu berriak ulertzeko.

Soinuaren behatokia

Behatokia soinuarekin lotutako prestakuntzarako, praktikarako eta ikerketarako gunea da.

Abiapuntuak

Irakasgai honen helburua da ikasleak beren filmaren izaerarekin eta abordatze-metodologiarekin aurrez aurre jartzea. Hainbat alderdi aztertuko dira: lana sormen-bidaiaren mui gisa abiapuntua hartuta, bidaiari hori zabaltzeko beharra estimulu zehatzetatik abiatuta, eta proiektua idazketatik lantzea.

Bideoentsegua eta historiaren berridazketak

Zinemaren historia eta haren kritika etengabeko berridazketa-praktikak dira, eta obra bakoitza aurretik dituenekin mintzatzen da. Ikus-entzunezko saiakerak azken urteetan izan duen gorakadak gorpuzten du dimentsio kritiko eta sortzaile hori. Ikastaro honek zinemaren eta kritikaren funtsezko uneekin dituen formak eta loturak aztertzen ditu.

Hitza pizten: idazketa poetikoaren tailerra

Hitza piztea, beraz, zentzumen irekiez behatzea da, hitz zehatza, perpaus zehatza, beharrezko irudia bilatzea. Funtsean, idazketa-tailerra da, emozioa sortzeko piztutako hitzetik abiatuko dena.

Ikasketa programari buruzko informazio gehiago

IRAKASLEAK

Elías Querejeta Zine Eskolako Komisariotza Zinematografikoan Masterreko irakasleak zinemaren alorrean diharduten profesionalak dira, kuradoretza eta ikerkuntza arloan esperientzia handia dutenak.

Espezialitateko ikasgaiak

Santiago Aguilar
(Ikertzailea eta zinegilea)

Asier Armental
(Argazki zuzendaria)

Carolina Cappa
(Ikerkuntza saileko koordinatzailea)

Joxean Fernández
(Euskadiko Filmategiko zuzendaria)

Sonia García López
(Ikertzailea)

Pablo Marín
(Zinegilea)

Ricardo Matos Cabo
(Komisariotza arloko koordinadorea)



Carlos Muguiro
(EQZEren zuzendaria)

Garbiñe Ortega
(Komisarioa)

Gonzalo de Pedro
(Komisarioa)

Olimpia Pont Cháfer
(Aholkularia)

Ane Rodríguez Armendáriz
(Komisarioa)

Lucía Salas
(Komisarioa)

Arrate Velasco
(EQZEko zuzendari kudeatzailea)

Zeharkako ikasgaiak

Peio Aguirre
(Komisarioa)

Cristina Álvarez López
(Saiakeragilea)

Yolanda Cáceres
(Kolorista)

Xabier Erkizia
(Soinu artista)

Michel Gaztambide
(Gidoilaria)

Mar González de Larramendi
(EQZEko ikasketa-burua)

Mona Jiménez
(Artxibozaina)

Adrian Martín
(Zinema kritikaria)

Cristina Neira i Aparicio
(Argazki zuzendaria)

Esther Urtus
(Artista bisuala)

Irakasleei buruzko informazio gehiago

EKIPAMENDUAK

EQZEren ekipamenduari eta instalazioei esker, zinema-
ren tresna analogikoak eta digitalak eskura ditzakete
ikasleek, bai irudiak eta soinuak jasotzeko, bai proze-
satzeko, postprodukzioarako, zaharberritzeko, zaintzeko
eta proiektatzeko.

Espazio hauetan garatzen dira bereziki Komisariotza
arloko ikasketak:

EQZE ZINEMA

EQZE Zinemak eskolaren zentro fisiko eta kontzeptuala
hartzen du. Elkarren ondoan dauden bi espaziok
osatzen dute (areto zuri bat eta areto beltz bat), eta 207
metro koadro ditu guztira. Bi espazio horiek zinema-
emanaldietarako pentsatuta daude, edozein ezaugarri
teknikotan: bai modu tradizionalean, areto ilunean, bai
erakusketa-moduan, galerian.

Zehazki, zinema-aretoak 89 lagunentzako edukiera du,
eta kabinak 35 mm, 16 mm eta DCP proiektoreak ditu.
Kabinak proiektzio-laborategiaren funtzioak betetzen
ditu, eta bere dimentsioengatik eta ekipamenduagatik
tailerrak emateko eta ikasleen eguneroko jardunerako
pentsatuta dago.

ZINEA 1 ARETOA

42 m²-ko pantaila eta 229 eserleku ditu 1. aretoak, eta
proiektzioak beste jarduera batzuekin bateragarri egi-
teko aukera ematen du. Ikasleak doan joan daitezke
Tabakalerako jendaurreko zinema emanaldi guztietara.

ZINEA 2 ARETOA

Euskadiko Filmategiak 46 eserlekuko zinema aretoa
dauka.

MEDIALAB (Tabakalera)

EQZEren mediateka da Medialab, eta bertan gordetzen
dira eskolako funtsak eta bildumak. Liburutegiko bil-
dumak 30.000 liburu, film, katalogo eta aldizkari
espezializatu baino gehiago ditu. Sorkuntzaren hainbat
esparrutan oinarritutako bilduma, ikasleen eskura.

EUSKADIKO FILMATEGIAREN DOKUMENTU FUNTSA ETA LIBURUTEGIA

Euskadiko Filmategiaren liburutegiko funts bibliografi-
koak 7.000 ale baino gehiago ditu. Honako hauek
osatzen dute bilduma: erreferentziarako obrak (hizte-
giak, entziklopediak, urtekariak); zinemagileei eta
zinematografiaren munduko gainerako profesionalei
buruzko monografiak; saiakerak; eskuliburuak eta
hainbat zinema aldizkari.

ARTXIBOA

2018az geroztik, Donostia Zinemaldia, EQZEren
batera, lanean ari da bere artxibo historikoa kontser-
batu, ikertu eta eskuragarri jartzeko.
Artxiboa.sansebastianfestival.com atarian zinemaldia-
ren historia arakatu, egindako ikerketak kontsultatu,
bilduma digitalak esploratu eta artxiboaren katalogoa
kontsultatu ahal izango dituzu, baita artxiboko materia-
larekin lan egiteko zure bisita prestatu ere.

[Ikasleen eskura dagoen ekipamendu teknikoari buruzko
informazio gehiago](#)

[Ekipamenduen inguruko informazio gehiago](#)

PRAKTIKA PROFESIONALAK

Komisariotza arloko ikasleek ikasturtean zehar gutxienez 100 orduko praktikak egin ahal izango dituzte hainbat erakundetan, proiektua babesten duten erakundeetan hasita (Donostia Zinemaldia, Euskadiko Filategia eta Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa) eta EQZEK lankidetzak-akordioak dituen beste erakunde batzuetara zabalduz.

Erakunde horien artean honako hauek daude:

- Artium Museoa
- Cine Cauce
- Courtisane Festival
- Fidmarseille
- FilMOTECA Española
- LightCone)
- Punto de Vista
- Xcèntric / CCCB

Bestetik, ikasle batek bere bitartekoen bidez kanpoko erakunde batean praktikak egiteko onespena jasotzen badu, hiru aldeen arteko hitzarmen baten bidez formalizatu ahal izango dira, betiere harrera-erakundeak unibertsitateko araudia errespetatzen badu eta praktikak ezarritako epealdien barruan egiten badira.

Praktika profesionalen inguruko Informazio gehiago



MASTER AMAIERAKO LANA

EQZE proiektuak garatzeko eskola ere bada: hiru espezialitateetako ikasleek amaierako ibilbide edo proiektu bat egin behar dute, dela norberaren ekime-
nez sortutakoa, dela eskolako lkerkuntza
Departamentuak lantzen dituen ikerketa ildoetako
batetik sortutakoa.

Komisariotza arloko ikasleen amaierako lanen edo
proiektuen tipologia honako hau da:

- Ikerkuntza proiektua
- Argitalpena (lan akademikoa, saiakera)
- Sorkuntza lana (filma, saiakera, instalazioa)

Proiektu guztiek tutore bat izaten dute, azken aurkez-
pena egin arte laguntzen duena.

Eskolan garatutako lanen inguruko informazio gehiago






KULTUR-ERREALITATE BERRIAK SORTZEKO GUNEA

Bere jardueren hasieratik, Elías Querejeta Zine Eskolak eta bere ikasleek hainbat zinema-proiekturen ikerketa, kontzeptualizazio eta ekoizpen prozesuetan parte hartu dute. Lan hori esker, film-zikloak eta ikus-entzunezko instalazioak komisariatatu dira, baita mintegiak eta topaketak antolatu eta horietan parte hartu ere, eta hainbat argitalpen editatu.

Hau lan honen erakusgarri bat da:

- Filmen zikloen komisariotza Courtisane Jaialdiaren 2024 eta 2025eko edizioetan.
- "Colección privada. The Super-8 and 16 mm Scene in Spain" zikloaren komisariotza, Anthology Film Archives-en eta MOMA-n (2023) erakutsia.
- "Dejemos que la casa se ensucie. Ciclo de cineastas argentinas" zikloaren komisariotza (2023).
- "En la otra isla" zikloaren komisariotza Donostia Zinemaldiaren 2024ko edizioan.
- "Los subterráneos" programaren komisariotza Cineteca Madrid eta DocumentaMadrid jaialdietan (2024).
- "A(r)mar la cámara" (2022), "ex-ÓRBITA" (2023), "Irla mortu bat" (2024) eta "ZINEMA GOXOA" (2025) zikloen komisariotza eta antolaketa Tabakaleran.
- "Abrazo inmaterial" ikus-entzunezko erakusketaren antolaketa Zorrotzaurre Art Work in Progress ekimenean (2024).



- “España y guadaña. Espectros de un pueblo por venir” zikloaren antolaketa Filмотeca Española erakundean (2024).
- “Cine Cauce” (2022-2025) erakusketa alternati-boaren topaketaren antolaketa.
- “Mapa del laberinto institucional y jurídico del sector audiovisual” (2024) mintegiaren antolaketa.
- “Zine izarak. Balizko film baten bila” (2025) tailerra-ren antolaketa.
- “Mis historias de cine” bildumaren argitalpena (Santos Zunzunegi, 2021-2023).
- *ZINE: ikerketa zinematografikorako koadernoak* (2021-2025) online ikerketa-aldizkariaren argitalpena.
- *El cuarto de sombras* (Camilo Restrepo, 2024) liburuaren argitalpena.
- *Filmmakers Thinking* (Adrian Martin, 2023) liburuaren argitalpena.
- *La casa de los anfibios* (Maui Alena, 2023) liburuaren argitalpena.



IKASLEAREN PROFILA

Programa akademikoa eratuta dago, bai goi mailako unibertsitate titulu bat (lizentzia edo gradua) duten edo hura lortzeko prozesuan dauden ikasleentzat, bai zinema eskolaren batean egresatu diren ikasleentzat.


Salbuespen gisa, aurre baldintza horiek bete gabe zinema esperientzia egiaztatua duten hautagaien kasu partikularrak aztertuko ditu zentroak.

Komisariotzako Masterra honako hauei zuzenduta dago: zinema eta ikus-entzunezko profesionalak, historialariak, programatzaileak, jaialdi, ziklo eta zinema-programen antolatzaileak; kritikari eta saiogileak, zinema, arte ederrak, artearen historia eta ikus-entzunezko komunikazioko ikasleak; artistak eta ikertzaileak.

Lan irteerak

EQZEko Komisariotza Masterreko ikasleek honako inguruneetan aritzeko gaitasuna lortuko dute:

- Ikerketa zentroak
- Argitaletxeak eta aldizkari espezializatuak
- Online programazio espazioak eta plataformak
- Zinema jaialdiak eta lehiaketak
- Museoak, galeriak eta arte zentroak
- Ekoiztetxeak eta banatzaileak



IZEN-EMATEA

Hautagaitzak aurkeztea

Izen-ematea horretarako prestatutako plataformaren bitartez bakarrik egin daiteke.

Hautapen prozesuan parte hartzeko prozedura honako hau izango da:

- NAN, AIZ edo pasaportearen kopia
- Biografia labur bat
- Motibazio gutuna
- Curriculum vitae eta/edo portfolioa
- Titulua eta/edo espediente akademikoa
- Txosten bat, non ikasleek ikasturtean garatu nahi duten proiektuaren nondik norakoak azalduko dituzten

Eskaerak ebatzea

Onarpen epean jasotako eskaerak Onarpen Epaimahaiak eta zentroko Zuzendaritza Akademikoak ebaluatuko dituzte. Lehen balorazio bat egin ondoren, hautagaiei elkarrizketa baterako deitu ahal izango zaie (presentziala edo online).

Zentroak eskaeraren erantzuna jakinaraziko die hautagaiei. Hiru hauetakoren bat izan daiteke: onartua, itxarote zerrendan edo ez onartua, eta parte hartzera gonbidatzen dituen ibilbidea.

Matrikulazioa

Onarpena baieztatu ondoren, hautagaiek beharrezko informazio guztia jasoko dute, aurkeztu beharreko dokumentazioari eta matrikularen kostua formalizatzeko eta ordaintzeko epeei eta ordainketa-metodoei buruz.

Erreserba-seinalea (matrikularen zenbatekoaren %20) adierazitako epean ordaindu ondoren bakarrik onartuko da hautagaia EQZEN.

Izen-emate prozesuari eta ohiko galderei buruzko informazio gehiago

Zuzendari akademikoa: Carlos Muguiro
Kordinatzailea: Ricardo Matos Cabo

Orduak: 450 ordu
+ 100 orduko praktika profesionalak

Gehieneko ikasle kopurua: 15

ECTS kreditu kopurua: 60 kreditu

Hasiera: 2026ko iraila
Amaiera: 2027ko abendua
Iraupena: 15 hilabete

Prezioa: 4.700 euro (2025-2026 Ikasturtea)

Hizkuntza: gaztelania eta ingelesa

ZINEMAREN HIRU ALDIEN ESKOLA



Con la participación de:



SSIFF Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival



**Elías Querejeta
Zine Eskola**

Andre zigarrogileak, 1
20012 Donostia / San Sebastián

T. (+34) 943 545 005
info@zine-eskola.eus

zine-eskola.eus